

1 OLENTZERO

OLENTZERO JOAN ZAIGU
MENDIRA LANERA,
INTENTZIOAREKIN
IKATZ EGITERA.

HORRA, HORRA!
GURE OLENTZERO,
PIPA HORTZEAN DUELA
ESERITA DAGO.
KAPOIAK ERE BAITU
ARRAUTZATXOEKIN
BIHAR MERIENDATZEKO
BOTILA ARDOAKIN. (BIS)

OLENTZERO, BURU HANDIA,
ENTENDIMENTUZ JANTZIA,
BART ARRATSEAN
EDAN OMEN DU
HAMAR ARROKO ZAHAGIA
BAI URDE TRIPA HANDIA!
TRALARA LAILA TRALARA LAILA
BAI URDE TRIPA HANDIA!
TRALARA LAILA TRALARA LA!

HORRA, HORRA!
GURE OLENTZERO...

2 DIN, DAN, DON!

DIN, DAN, DON! DIN, DAN, DON!
EGUBERRI ON!
ZORION, ZORION!
GABONAK, DIN DAN DON!

DIN, DAN, DON! DIN, DAN, DON!
EGUBERRI ON!
ZORION, ZORION!
GABONAK GABON!

IZAR BAT HASI DA
DIZDIZKA ZERUAN,
BERRI ONA ZABALTZEN
ARI ZAIGU MUNDUAN.
JAIO DA, JAIO DA,
JAUNAREN SEMEA,
ASKATXO BATEAN DAGO,
LASTOEN GAINEAN.

GABON-ESKEA 2024

DIN, DAN, DON!...

AINGERUAK KANTA,
ARTZAI ONAK DANTZA,
JAINKOAREN JAIOTZAN
PAKEA ETA AINTZAI!
ASTOAK, AJA-JA,
IDIAK MUU-MU!
ESTALPE ZAHARREAN
KANTUAN ARI ZAIZKIGU.

DIN, DAN, DON!...

3 NIK MAITE DUT NEGUA

NIK MAITE DUT NEGUA
HOTZA ETA ELURRA
NIK MAITE DUT NEGUA
SENIDE TA LAGUNAK

NAHI DUT TXOKOLATE BEROA BAI, BAI
NAHI DUT ESKIATU MENDIAN BAI, BAI
NAHI DUT OLENTZERO ETXIAN BAI, BAI
NAHI DUT PANPIN LODIA JANTZITA BAI, BAI

NIK MAITE.....

EZ DUT NAHI HONDARTZA IKUSI EZ, EZ
EZ DUT NAHI KREMAZ GORPUTZA BUSTI EZ, EZ
EZ DUT NAHI IZOZKIA URTURIK EZ, EZ
EZ DUT NAHI BERORIK EZ, EZ, EZ

NIK MAITE.....

NAHI DUT MENDI TXURI-TXURIA BAI, BAI
NAHI DUT ARGI GUTXI KALETAN BAI, BAI
EZ DUT NAHI ZUHAITZAK MOZTERIK EZ, EZ
EZ DUT NAHI EROSKETA HANDIRIK EZ, EZ

NIK MAITE...

4 HORRA, MARI DOMINGI!

HORRA, MARI DOMINGI!
BEGIRA HORRI!
GUREKIN NAHI DUELA
BELENA ETORRI.

GUREKIN NAHI BADUZU
BELENA ETORRI ,
ATERA BEHARKO DUZU
GONA ZAHAR HORI.

HATOZ, HATOZ!
ZURE BILA NENBILEN NI!
HATOZ, HATOZ!
ZURE BILA NENBILEN NI!
HATOZ, GOAZEN!
ADORA DEZAGUN
BELENEN JAIIO DEN
HAUR EDER HORI!

IRRINTZI ETA POZA
ALGARAREKIN ,
HORI BEHAR DINAGU
GUK ALKARREKIN.

POZEZ ADORA 'ZAGUN
JESUS HAUR HORI ,
BERAK EMAN DIEZAGUN
GAUR ZORIONIK.

HATOZ, HATOZ!
ZURE BILA NENBILEN NI!
HATOZ, HATOZ!
ZURE BILA NENBILEN NI!
HATOZ, GOAZEN!
ADORA DEZAGUN
BELENEN JAIIO DEN
HAUR EDER HORI!

5

OILARRA KANTA-KANTARI

OILARRAK KANTA-KANTARI
KUKURRUKU-KUKURRUKU
KALE JIRAN DABILTZA
KUKURRUKU-KURRUKU.

EGUERRI GAUA OSPATZEN
KUKURRUKU-KUKURRUKU
JESUS JAIO DA BELENEN
KUKURRUKU-KURRUKU.

6

NOR OTE?

NOR OTE, OLENTZEROREN LAGUNA
NOR OTE, POLIKI DATORRENA? (BIS)

GAIXORIK ERE ONENEN PARE,
HEMEN DUGU AURTEN ERE!

NOR OTE, OLENTZEROREN LAGUNA...

BI HANKA BAINO GEHIO DITU,
"ESKERRAK LAU DITUEN" DU ADITU!

NOR, OTE OLENTZEROREN LAGUNA...

OLESERA DATOR GUREKIN,
BADA EZ BADA LOTURIK.

NOR OTE, OLENTZEROREN LAGUNA...

ZAMAZ GAINEZKA KALEETAN,
ELURRA NAHIZ EGUZKITAN.

NOR OTE, OLENTZEROREN LAGUNA...

BELARRI ETA BUZTAN LUZE,
KEXATU GABE GAUERA ARTE.

NOR OTE, OLENTZEROREN LAGUNA...

7

HATOR, HATOR!

HATOR, HATOR, LAGUN, ETXERA,
GAZTAINA XIMELAK JATERA,
GABON GAUA OSPATUTZEKO
AITAREN TA AMAREN ONDOAN,
IKUSIKO DEK AITA PARREZKA
AMAREN POZ-ATSEGINEZ.

ERAGIOK, LAGUN,
AURREKO DANBOLINARI,
GAZTAINAK ERRE ARTIAN,
GAZTAINAK ERRE ARTIAN...
TXIPLI, TXAPLA, PUN!

GABON GAUA POZIK
IGARO DEZAGUN.

8

BIZARZURI

GABONAK, GABONAK!
HAU ZORIONA!
BERTSOTAN ARI ZAIGU
GAUR AITONA.
JA, JA, JA!
BARREZKA DAGO AMONA.

BIZARZURI, BIZARZURI,
MENDI GAINAK, ZURI-ZURI,
ZORIONAK, ZORIONAK,
BERTAN DITUGU GABONAK.

TXIMINI ZULOTIK
NORBAIT SARTU DA
MUTUR BELTZ, BEGI GORRI,
AIBALIO,
OLENTZERO DELA,
HALAXE DIO.

BIZARZURI, BIZARZURI...

LASTER URTEBERRI
GAUR OLENTZERO,
ALFERRONTZI MOZKOR
ETA TRIPERO
HOR DAGO SUTONDOAN
BERO-BERO.

BIZARZURI, BIZARZURI...

9

KAX, KAX!

KAX, KAX, ATARIAN!
NOR DABIL ETXEAN?
IKUSI MAKUSI
NOR NAIZEN IKASI.

BOTA HAUNDIAK,
PRAKA ZABALAK,
AI ENE!
EZ DAKIT EZER EZ, EZ, EZ
AI ENE!
KONTATU MESEDEZ.

KAX, KAX...

GERRIKO BELTZA,
KAIKU GORRIA.
AI ENE!
EZ DAKIT EZER EZ, EZ, EZ
AI ENE!
KONTATU MESEDEZ.

KAX, KAX...

MUTUR ZIKINA
TXAPEL URDINA
AI ENE!
EZ DAKIT EZER EZ, EZ, EZ
AI ENE!
KONTATU MESEDEZ.

KAX, KAX...

PIPA HORTZETAN,
ARDOAN BERTAN,
BAI, BAI, BAI,
LEHEN, ORAIN ETA GERO
ZU ZARA
GURE OLENTZERO.

10

OLE OLENTZERO

OLE, OLENTZERO!
OLE, OLENTZERO!
OLE, OLENTZERO!
OLE, OLENTZERO!
OLE, OLENTZERO!
OLE, OLENTZERO! (BIS)

OLENTZERO JOAN ZAIGU
MENDIRA LANERA
INTENTZIOAREKIN
IKATZ EGITERA (BIS)

HORRA, HORRA!
HORRA, HORRA!
GURE OLENTZERO
PIPA HORTZETAN DUELA
ESERITA DAGO. (BIS)

OLE, OLENTZERO! ...

OLENTZERO, BURU HANDIA
ENTENDIMENTUZ JANTZIA,
BART ARRATSEAN
EDAN OMEN DU
HAMAR ARROKO ZAHAGIA (BIS)

HORRA, HORRA!
HORRA, HORRA!
GURE OLENTZERO,
KAPOIAK ERE BADITU
ARRAUTZATXUEKIN.

HORRA, HORRA!
HORRA, HORRA!
GURE OLENTZERO
BIHAR MERIENDATZEKO
BOTILA ARDUAKIN.

OLE, OLENTZERO! ...